



A m o r o t o k o U d a l a

Elexalde Auzoa, 1
48289 Amoroto (Bizkaia)
Tel: 946842549 - Fax: 946243704
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org
Web: www.amoroto.net

Akta: 02/04

2004KO OTSAILAREN 11AN EGINDAKO BATZARRA

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko otsailaren hamaikan, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Ramon Abaroa Iturraran
Bitor Mari Gabiola Leniz
Ainara Ikaran Zugazaga
Igor Gabiola Antxustegi
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea
Idazkaria: César Gandarias Badiola

Bertaratu ez direnak:

Sorkunde Gabiola Zabala

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- LEHEN OKUPAZIORAKO HIRIGINTZ BAIMEN ESKAERA.-

Kontxi Txurruka Laka andreak, Ugaran auzoan kokatzen den Errekarte baserriaren lehen okupaziorako hirigintz baimena eskatu du.

Kontuan izanik eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta udal arkitektu aholkulariaren txostena, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1) Ugaran auzoan kokatzen den Errekarte baserriaren lehen okupaziorako hirigintz baimena ematea.
- 2) Interesatuak eraikinaren Uri Katastroaren alta eskaeraren kopia aurkeztu beharko du.
- 3) Zergaren ordainketa 32.073,49 eurotako likidazioari buruz egingo da.

2.- LEHEN OKUPAZIORAKO HIRIGINTZ BAIMEN ESKAERA.-

German Eiguren Goitia jaunak, Odiaga auzoan kokatzen den etxebizitzaren lehen okupaziorako hirigintz baimena eskatu du.

Kontuan izanik eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta udal arkitektu aholkulariaren txostena, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1) Odiaga auzoan kokatzen den etxebizitzaren lehen okupaziorako hirigintz baimena ematea.
- 2) Interesatuak eraikinaren Uri Katastroaren alta eskaeraren kopia aurkeztu beharko du.
- 3) Zergaren ordainketa 71.681,00 eurotako likidazioari buruz egingo da.

3.- MARIBI UGARTEBURU ANDREARI, EGOKI BADA, OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.-

Maribi Ugarteburu andreak, Odiaga auzoko Goiogane baserrian, berrikuntza lanak egiteko aurkeztu duen udal lizentzi eskaeraren berri eman da, obra honen aurrekontua 160.000,00 eurotako izanik. Gai honi buruz, Udal arkitektu aholkulariak egindako txostenaren berri eman da, baita ere. Ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1.- Eskatutako obretarako baimena ematea, ondorengo baldintzei loturik:

1) Lanak proiektuan aurkeztu denarekin bat egon beharko dute. Baimenaren baldintzetatik kanpo gelditzen den edozein aldaketa urratse zigorgarria izango da eta dagokion legalizazio espedientea eskatu ahal izango da.

2) Lanak bukatzeko epea urte bikoia izango da, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik baimenaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako baimen epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

3) Lanak hasi aurretik Udal Idazkaritzan 4.839,45 € ordaindu beharko ditu, espedientean agertzen denaren arabera.

4) Lanak egiterakoan, kontuan hartuko dira indarrean dauden araudi guztiak, batez ere laneko osasun eta segurtasunari buruzkoak

5) Lanen amaieran okupazio baimena eskatuko da, dokumentu hauek aurkeztuz: obra amaierako ziurtagiria eta likidazioaren laburpena, guzti hau obrako tekniko zuzendariaren Elkargo Profesionalak bisatuta.

6) Obretarako baimen hau jabeak eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

2.- Osoko Bilkurako 1990eko abenduaren 26an eta 2000ko urriaren 3an hartutako akordioaren arabera, obra hauek egiteko, Udalak 4.839,45 eurotako dirulaguntza ematen du, baserria konpontzeko eta hobetzeko lanak direlako.

4.- 2004. URTEARI DAGOKION TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ERROLDA ONARTZEA.-

2004. urteari dagokion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eroldaren berri eman da, biltzeko zenbateko osoa 20.452,45 eurotako delarik.

Udalbatzak aipatu errolda onartzea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarki baten bidez jendearean agertaraztea erabaki du, interesatuek egokiak deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten.

Era berean, borondatezko kobratze epea, maiatzaren 1etik uztailaren 30era ezartzea erabaki da. Epe hau bukatuz gero, premiamendu bidez iraungo du kobratze prozedurak, kostuen %20a gehiturik.

5.- IZARTU PROGRAMAREN BARRUAN DIRULAGUNTZA ESKATZEA EUSKO JAURLARITZARI.-

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 306/2003 Dekretuak gainbehera etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko erabateko egitarau laguntzeko neurriak ezartzen ditu.

Udalbatzaren ustez, Amoretoko Udala aipatutako kasuen artean aurkitzen da. Gainera, hurrengo urteetarako udalak 306/2003 Dekretuan jasotzen diren helburuekin bat datozen hainbat egitarau prestatu ditu. Egitarau hauen aurrekontua 2.625.346,09 eurotako da.

Azaldutako guztia kontutan harturik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Izartu programa arautzen duen 306/2003 Dekretuari buruzko dirulaguntza eskatzea, hurrengo lau urtetan Amoretoko herria biziberritzeko eta berpizteko egingo diren ekintzak aurrera eramateko.

2) Ekintza horien 2.625.346,09 eurotako aurrekontua onartzea.

6.- FORU ERREPIDEEN LAGAPEN ESKAERA FORU ALDUNDIARI.-

Datozen urteetan Amorotoko hirigunetan egiteko diren berrantolakuntzak direla eta, Udalbatzak, Oleta eta Elizalde inguruetan dauden Foru Errepideak eskuratzearen komenigarritasuna aztertu du. Kontutan izanik aipatutako eremuetan hirigunea zabaltzeko asmoa dagoela, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1) Bizkaiko Foru Aldundiari honako errepide hauen lagapena eskatzea:
 - BI-2405; 63,350 kilometrotik 64,000 kilometrora.
 - BI-3447; 52,670 kilometrotik 52,800 kilometrora.
 - BI-4406; 64,900 kilometrotik 65,520 kilometrora (Amorotoko Udaletxera).
- 2) Alkatea ahalmentzea akordu hau aurrera eramateko behar diren agiri edo dokumentuak sinatzeko.

7.- MANTENIMENDU KONTRATUA ONARTZEA.-

Idazkariak azaldu du Cetolar, S.A.k aurkeztu duela Amorotoko urtegian dagoen ura garbitzeko "Cetolar" lantegiari dagokion mantenimendu kontratua, Udalak onartu eta izenpetzeko.

Udalbatzak aho batez erabaki du Amorotoko urtegian dagoen ura garbitzeko "Cetolar" lantegiaren mantenimenduari dagokion Cetolar, S.A.k aurkeztutako kontratua onartzea eta Alkate andrea baimentzea bera izenpetzeko.

8.- DIRULAGUNTZA ESKAERAK.-

Aurkeztutako dirulaguntza eskaerak azterturik, Udalbatzak aho batez erabaki du: Ondoren aipatzen diren dirulaguntzak ematea:

- Araba Euskarazentzat, 150,00 €.
- Euskadi Fundazioari, 100,00 €.

9.- GASTUAK.-

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- Ansaren faktura, 74,36 €.
- Bide Ondoren faktura, 404,12 €.
- Canonen faktura, 39,92 €.
- Europa Azulen faktura, 48,08 €.
- Elektrogailuak L. Garatearen faktura, 676,89 €.
- Lex Novaren faktura, 210,08 €.
- Fermin Burdindendaren faktura, 39,56 €.
- Zaldibiaren faktura, 411,67 €.
- Euskaltelen faktura, 53,46 €.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamaikak laurden gutxiago direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.